

FUNTSESKO BALIABIDEAK

Gure enpresa sortu ahal izateko lehengaiak beharko ditugu, ez bakarrik baliabide fisikoak, ekonomikoak eta intelektualak ere. Testu honetan, ezinbestekoak diren baliabideak adieraziko ditugu.

Hasiera batean, baliabide fisiko batzuk beharko ditugu, gure makina egin ahal izateko. Esaterako, metalak, plastiko gogorrak eta beste hainbat elementu beharko ditugu gure makinaren produkzioarekin hasteko. Gainera, makinaren barruko funtzionamendurako piezak beharko ditugu, kableak, plantxak, laserrak, engranajeak, softwarak, zinta bat, pantaila bat eta motor bat. Hori gutxi balitz, Uggasa enpresakin kontaktatu beharko dugu. Horrez gain alokairuaren barruan behar ditugun altzari eta aparatu elektronikoak ezinbestekoak direla ere pentsatzen dugu, hauek dira behar ditugun horietako batzuk: mahiak, aulkiak, ordenagailuak, wifi sarea,.... Gainera, gure makina sortzeko tresnak ere beharko ditugu, esaterako, zulagailua, bihurkina.... Hori gutxi balitz, furgoneta bat beharko dugu, gure makinak garraiatzeko. Baliabide fisiko horiek guztiak lortzea ezinbestekoa izango da gure proiektuak arrakasta eduki al izateko.

Gure proiektuan martxan jartzeko funtsezko baliabide finantzario nagusia dirua izango dan. Hasiera batean dirurik edukiko ez dugunez aipatutako balibide fisikoak ordaintzeko, banketxeari mailegu bat eskatuko diogu eta hasierako gastu hauek ordaindu eta proiektuarekin hasiko gara.

Baliabide intelektualak ezinbestekoak izango dira gure proiektuak arrakasta edukitzeko, lan batzuetaz gu arduratuko gara baina beste lan batzuetarako laguntza beharko dugu. Guk makinaren diseinua egingo du, baina enpresaren batekin kontaktatu beharko dugu gure makinaren diseinua egiteko, gu ez garelako gai horrelako gauzak egiteko. Bestalde, gure makinaren programa ondo egitea oso garrantzitsua izango da gure proiektuarentzako, beraz programatzile batekin jarriko gara kontaktuan, guk ez dakigulako horrelako programak nola egiten dira. Azkenik gure enpresaren kontuak egiteaz gu arduratuko dira, irabazietaz, gastuetaz eta bankuaren kontu korrontez.

Talde honetako partaideoi asko gustatzen zaizkigu matematikak eta marrazketa teknikoak. Matematikan abilenak Markel eta Ander dira, zenbakiak asko gustatzen zaizkie eta gainera oso ondo moldatzen dira arlo honetan. Bestalde, Iker eta Beñatek abilezia handia dute marrazketa teknikoan, konpas eta erregelekin bikain moldatzen dira.

Hau guztia labor esanda, gure proiektuak arrakasta izateko, gure lanak garrantzi handia izango du, baina gure lana ez da izango behar dugun bakarra, pertsona eta enpresa ezberdinen laguntza beharko dugu, gure funtsezko baliabideak lortu ahal izateko, bai baliabide fisikoak, ekonomikoak eta intelektualak, guztiak garrantzi handia dute, eta gure proiektua ondo ateratzeko ezinbestekoak izango dira.